



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

EBAZPENA, 2015eko martxoaren 18koa, Hezkuntza sailburuordearena, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mende dauden eta unibertsitatekanpoko irakaskuntza ematen duten ikastetxeak (salbu eta heziketa-zikloak ematen dituztenak) deitzen dituen hezkuntzaren bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egin ditzaten 2015-2016 ikasturtean.

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onartutako “Heziberri 2020” Planaren helburua argia da: Europako esparruan hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloan 2020rako ezarritako berrikuntza- eta garapen-ildo estrategikoak bateratzea hezkuntzak gure testuinguruan eta ingurunean dituen erronkekin. Plan horrek “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa” biltzen du, hezkuntza-eredu pedagogikoaren gida-lerro nagusiak xedatzen dituena hain zuzen. Paradigma-aldaketa esanguratsua dator, izan ere kompetentzietan oinarritutako hezkuntza du ardatz proiektu horrek. Kompetentzien araberrako pedagogian, jakintzez, egiten jakiteaz eta izaten jakiteaz ikasitakoa transferitu, artikulatu eta konbinatu egiten da, egoera funtzional konplexuak konpontzeko.

Hezkuntza-eredu pedagogikoaren marko horretan zehaztutako ildo estrategikoetako bat irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzarena da. Eta horri lotuta, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, 2014-2017 aldirako, unibertsitatekanpoko irakasleak Etengabe Prestatzeko Prest_Gara Plana abiarazi du. Berorren lehentasunezko ekintza-ildoetako batek horrela dio: “Bikaintasunerantz, jardun egokietatik eta ekintzailetasunetik abiatuta”. Modu horretan, eta “Heziberri 2020” Planean jasotakoarekin bat, hezkuntza-prozesua kompetentziak eskuratzeko bidea da; era berean, ikasgelako jarduerak hobetzea ere xedeetako bat da.

“Bikaintasunerantz, jardun egokietatik eta ekintzailetasunetik abiatuta” deritzon ekintza-ildoaren abiapuntua hauxe da: irakasleriak hezkuntza-komunitatearen (ikastetxea, irakasleria, familiak, ingurunea) ardatza izan behar du, bai eta beste edozein prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerarena ere. Ikaslea da hezkuntza-sistemaren azken hartzailea. Hala, zuzentasunetik abiatuz eta bikaintasuneranzko bidean, hizkuntza-, zientzia-, matematika- eta gizarte-gaitasunetan trebatu nahi da ikaslea; horretaz gainera, tresna eta estrategia egokiak eta nahikoak eman nahi zaizkio gizarte demokratiko, zuzen, berdintasunezko eta parte-hartzaile bateko kide izan dadin.

Zuzentasun eta bikaintasun hori lortzeko, etengabe hausnartu, gaurkotu eta hobetu behar da ikastetxeko heziketa-lana eta ikasketa. Ikastetxea zein irakaslea funtsezkoak dira irakatsi eta ikasteko prozesuan, eta parte aktiboa hartu behar dute etengabe hobetzeko prozesuan.



Horregatik, proposatzen da prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak eta -proiektuak ikastetxeen barrutik eta haien premietatik abiatzea, soluzioak ikastetxean bertan aplika daitezzen, eragin nabaria izan dezaten, eta hasierako egoera aldatzen dela ikus dadin. Ikastetxe jakin baten barruko bikaintasun-proiektuek eta -esperientziek eragin handiagoa dute, irakasleei, gainerako langileei eta ikasle guztiei eragiten baitie, eta antolaketa aldatzeko bidea izan daitezke.

Testuinguru horretan “Heziberri 2020” Plana eta “Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa” aukera aparta dira ikastetxeek hausnar egiteko euren hezkuntza-ereduez eta ikasgelako jardueraz. Hortik abiatuta, prestakuntza jarduerari ekingo zaie ikasleek hainbat konpetentzian lortu beharreko gaikuntza eskura dezaten, ikasleen irteera-profilean adierazita dagoen legez. Horregatik, ikastetxeak proiektuak aurkeztera gonbidatzen ditu Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, irakasleen etengabeko prestakuntza berrikuntzaren bidetik eramateko, eragin positibo bat sortuz ikastetxearen ohiko dinamikan. Era berean, lan-praktika egokiak partekatzea gonbidatzen ditu, bai ikastetxean bertan, bai beste ikastetxeekin, eta, hartara, *inter pares* prestakuntzaren balioa azpimarratzera.

Gauzak horrela, apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituenen, eta gainerako xedapen aplikagarrietan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua.- Deialdiaren xedea.

Deialdi honen xedea da Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko edozein maila eta motatako irakaskuntza ematen duten ikastetxe publikoak diruz hornitzea (salbu eta heziketa-zikloak bakarrik ematen dituztenak), hezkuntzaren bikaintasuneranzko honako prestakuntza-proiektu motak egin ditzaten 2015-2016 ikasturtean:

- Berrikuntza-proiektu integralak
- Hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuak
- "Partekatuz ikasi" esperientziak

2. artikulua.- Onuradunak.

Honako hauek izan ahalko dira deialdi honetako laguntzen onuradun: Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren mende dauden eta unibertsitatetik kanpoko edozein maila eta motatako irakaskuntza ematen duten ikastetxe publikoak, salbu eta heziketa-zikloak bakarrik ematen dituztenak.

3. artikulua.- Diru-zuzkidura eta laguntzak emateko prozedura.



1. Aipatutako helburua lortzeko, 607.000 euro bideratuko dira guztira, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako diru-sailen kontura.

2.- Hornidura hori honela banakatuta geratzen da, diruz lagun daitezkeen proiektu-modalitateen eta lurralde historikoen arabera:

- a) 144.000 euro berrikuntza-proiektu integraletarako (25.000 euro Arabarako, 64.000 euro Bizkairako eta 55.000 euro Gipuzkoarako).
- b) 330.000 euro hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuetarako (56.000 Arabarako, 156.000 euro Bizkairako eta 118.000 euro Gipuzkoarako).
- c) 133.000 euro "Partekatuz ikasi" esperientzietarako.

3.- Lurralde historiko bakoitzeko eta diruz lagun daitezkeen proiektu mota bakoitzeko zenbatekoa esleitzeko, lehiaketa bidezko prozedura baliatuko da. Aurkeztutako eskabideak konparatuko dira, lehentasunak finkatzeko, eta, horretarako, I. eranskineko balorazio-baremoa hartuko da kontuan. Honako hauek soilik hornituko dira diruz, betiere, agindu honek ezartzen duen gehieneko zenbatekoa kontuan hartuta: 14. artikulua ezartzen duen gutxiengo puntu kopurua lortzen dutenen artean puntu gehien eskuratzen dituztenak. Balorazio-fasean lortzen duten puntu kopuruari jarraituz hornituko dira diruz, goitik behera, onuradunen gehieneko muga bete arte edo, dagokionean, dagokion prozedurari esleitutako diru kopurua agortu arte. Berdinketarik badago, honako hauek izango dute lehentasuna: 2014-2015 ikasturtean deialdi honen babespean finantzaketa ekonomikorik lortu ez zuten ikastetxeen proiektuek. Haien artean ere berdinketarik badago, honako hauek izango dute lehentasuna: ikasle bekadunen ehunekorik handiena duten ikastetxeek.

4.- Berrikuntzako proiektu integralei dagozkien prozedurak ebatziko dira lehenik eta behin, eta prozeduraren batean esleitutako diru-hornidura agortzen ez bada, bai eskatutako baldintzak betetzen dituzten proiektu integral nahikoa aurkeztu ez delako bai eman diren zenbatekoak gehienez eman daitezkeenak baino baxuagoak direlako, soberan geratzen den zenbatekoa lurralde historiko horretako berrikuntzako prestakuntza-proiektuei dagokien hornidurari gehituko zaio. Azkenik, praktika egokien esperientziei dagokien prozedura ebatziko da. Dirurik gelditzen bada "Partekatuz ikasi" esperientziei dagokien prozedura ebatzitakoan, dagokion lurralde historiko bakoitzari hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuetarako esleitutako kopuruari gehituko zaio sobera geratzen den zenbatekoa, proportzioan. Era berean, dirurik gelditzen bada hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuei dagokien prozeduraren bat ebatzitakoan, gainerako lurralde historikoei esleitutako kopuruari gehituko zaio sobera geratzen den zenbatekoa, proportzioan.

4. artikulua.- Diruz lagun daitezkeen gastuak eta diru-laguntzen zenbatekoa.

1.- Ikastetxe bakoitzak proiektu mota bakarrerako finantzaketa eskuratuko du deialdi honen kontura, eta, dagokionean, "Partekatuz ikasi" esperientzia baterako finantzaketa ere



eskuratuko du. Nolanahi ere, proiektu mota guztietarako eskabideak aurkez ditzakete ikastetxeek. Horrelakorik egiten badute, honako hau izango da onuradunak hautatzeko modua:

- Ikastetxe batek proiektu mota bakoitzerako eskabide bat aurkezten badu eta bi proiektuen edukia bera bada, aukeraketa-prozeduretatik kanpo geratuko dira biak.
- Ikastetxe batek proiektu mota bakoitzerako eskabide bat aurkezten badu eta bi proiektuen edukia ezberdina bada, berrikuntza-proiektu integrala baloratuko da lehenik, eta, dirurik ematen bazaio, hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektua ez da sartuko balorazio-fasean, eta dagokion esleipen-prozeduratik kanpo geratuko da.

2.- Zer proiektu finantzatzeko ematen den dirua, hura garatzeko eta gauzatzeko zuzeneko gastuak ordaintzeko baino ez da erabiliko diru-zuzkidura; nahi izanez gero, gastu guztiak ordaintzeko, hala nola hizlariak kontratatzeak eta proiektuan parte hartzen duten irakasleek haren barruko jarduerak egitekoak. Prestakuntza-jardueraren gastu gisara hartu ahal dira honako hauek: prestakuntza-jardueraren kostua –prestakuntza ematen duen erakundearen aurrekontuaren arabera–, eta hizlariaren lekualdatze-dietak edo ostatu- edo jan-edanetarako gastuak, prestakuntza ematen duen erakundeaz kanpokoa denean eta prestakuntza-saio horiek beharrezkotzat jotzen direnean. Inolaz ere ez dira prestakuntza-jardueraren kostutzat joko jardueran parte hartzen duten irakasleen lekualdatze- edo jan-edanetarako gastuak. “Partekatuz ikasi” esperientziei dagokienez, ordea, aukera izango da diru-zuzkidura esperientzia batean parte hartzen duten ikastetxeen artean ibiltzeko gastuak ordaintzeko baliatzeko.

3.- Proiektuaren barruan diruz lagun daitezkeen gastuen % 100 finantzatzeko dira, honako muga hauen barruan:

- 3.000 euro gehienez berrikuntza-proiektu integraletarako.
- 2.000 euro gehienez 2014-2015 ikasturtean diruz hornitu ziren berrikuntza-proiektu integralen bigarren urterako.
- 2.000 euro gehienez hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuetarako.
- 1.000 euro gehienez “Partekatuz ikasi” esperientzietarako.

5. artikulua.- Proiektuak baztertzeak arrazoiak.

Baztertu egingo dira deialdi honetako baldintzak betetzen ez dituzten proiektuak, bai eta honako hauek ere:

- a) “Eleaniztasunerantz” eleaniztasuna bultzatzeko lerroaren ildoko berrikuntza-proiektu integralak eta hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak, lerro hori beste deialdi batzuen barruan dagoelako.



- b) Ikastetxe batek aurkezten dituen berrikuntza-proiektu integralak eta hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta haien edukia bera bada.
- c) Irakasleentzako jarduerak bakarrik garatzen dituzten eta irakaskuntza-lanaren ondorio diren berrikuntza-proiektu integralak eta hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta ikastetxeko ohiko jardunaren parte badira eta ez irakatsi eta ikasteko prozesuena.
- d) Heziketa-zikloi bano ez dagozkien hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak.
- e) Heziketa-zikloi bano ez dagozkien hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak, baldin eta aurkezten dituzten ikastetxeek horrelako proiektuak egiteko zuzkidurarik eskuratu bazuten 2014-2015 ikasturtean eta proiektua berria ez bada edo aurreko ikasturtean landutako gaiak garatzen ez baditu.
- f) “Partekatuz ikasi” esperientzietan parte hartzeko eskaerak, baldin eta ikastetxeak ez baditu haiek aurrera eramateko hiru pertsona gutxienez.
- g) “Partekatuz ikasi” esperientzietan parte hartzeko eskaerak, baldin eta ikastetxeek esperientzia berean parte hartzeko dirua eskuratu bazuten 2014-2015 ikasturtean.

6. artikulua.- Berrikuntza-proiektu integralak.

1. -Ikastetxeak bultzatu nahi duen hezkuntza-ereduaz sakon hausnartzeko proiektuak dira, eta aldatu nahi den hezkuntza-jardueraren zeharkako alderdi nagusiei ekitea dute helburu. Garrantzitsuak direla eta, ikasturte bat baino gehiago behar dute horrelako gaiak, baita hezkuntza-komunitatearen akordioa ere. “Heziberri 2020” Planaren markoaren baitan hezkuntza-berrikuntzako proiektu integralak aukera ematen diete ikastetxeei prestakuntza-jarduerak proposatzeko eta ikastetxearen beraren hezkuntza-proiektuaz gogoeta egiteko, kompetentziak eskuratzeko eredutik abiatuta, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuan egoki irizten dieten hobekuntzak egin ahal izateko.

2. Zenbait ikastetxek egindako berrikuntza-proiektu integral bat egiteko eskaera onartuko da (ikastetxe arteko berrikuntza-proiektu integrala). Ikastetxe batek aurkeztuko du eskabidea: espedientea kudeatzeko helburuetarako, proiektuan parte hartzen duten ikastetxe guztiak ordezkatzeko ditu, eta, hortaz, hark eskuratu du dirua eta hark aurkeztuko du justifikazioa. Esleitzen den zenbatekoa ez da izango handiagoa eskaera ikastetxe artekoa izategatik.

3. - Ikastetxeko hezkuntza-proiektua eta hobekuntza-plana izango dute erreferentetzat hezkuntza berritzatzeko proiektu integralak —ebaluazio diagnostikoaren ondorio da ikastetxeko hobekuntza-plana—, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak finkatutako oinarrizko gaitasun eta/edo ildo nagusi bati edo gehiagori helduko diote. Honako atal hauek sartu behar dira barruan:



- Diagnostikoa
- Helburu estrategikoak
- Helburu orokorrak
- Hartzaileak
- Gauzatuko diren ekintzak, irakasleentzako prestakuntza-jarduerak barne
- Aurrekontua
- Plangintza eta gauzatzeko egutegia. Garapen-faseak eta epeak
- Proiektua ebaluatzeko eta emaitzak neurtzeko irizpideak

3.- 2014-2015 ikasturtean berrikuntza-proiektu integral bat egiteko dirua eskuratu zuten ikastetxeek ere aurreko paragrafoan aipatutako atalak adieraziko dituzte proiektua 2015-2015 ikasturtean zehar luzatzeko eskabidean, proiektuaren bigarren urteari dagokionez.

4.- Hezkuntza berriztatze proiektu integralean sartuta egon behar du klaustro osoak. Proiektu bakoitzak gutxienez 45 ordu izango ditu garatzeko eta gauzatzeko.

7. artikulua. - Hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuak.

1.- Hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuen helburua da ikastetxean garatzen den hezkuntza-jardueraren arloren batean ekitea, ikasturte bakar baten barruan. "Heziberri 2020" Planaren markoan hezkuntza-berrikuntzarako prestakuntza-proiektuek aukera ematen diete ikastetxeei irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuaren alorreko prestakuntza-jarduerak proposatzeko, zeharkako konpetentziak lortzeko bidean; aukera ematen diete, bidenabar, egoera/problema interesgune duten egoerak sortzeko, ikasleek eskuratutako jakintzak praktikan jar ditzaten; eta, azkenik, aukera dute garrantzitsuak diren edukien hautua egiteko, konpetentzietan oinarritutako hezkuntza-eredutik ekinda.

2.- Hezkuntza berriztatze prestakuntza-proiektuek kontuan izango dute ikastetxearen hobekuntza globala, eta, hortaz, honako hauek izango dituzte erreferentzia nagusitzat: batetik, ebaluazio diagnostikotik sortzen den hobekuntza-plana eta, bestetik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak finkatutako ildo nagusiak. Gainera, arreta berezia jarriko dute irakatsi eta ikasteko prozesuetan eta oinarritzko gaitasunen garapenean. Gutxienez hezkuntza-etapa batean aplikatuko da eta hango irakasleek parte hartu beharko dute. Honako atal hauek sartu behar dira barruan:

- Diagnostikoa
- Helburu estrategikoak
- Helburu orokorrak
- Hartzaileak



- Gauzatuko diren ekintzak, irakasleentzako prestakuntza-jarduerak barne
- Aurrekontua
- Plangintza eta gauzatzeko egutegia. Garapen-faseak eta epeak
- Proiektua ebaluatzeko eta emaitzak neurtzeko irizpideak

3.- Ez da eskaerarik onartuko baldin eta hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak ez badira 2014-2015 ikasturteko deialdian ikastetxe berek aurkeztutako proiektuen errepikapena besterik.

4.- Hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak eragiten dien irakasleen % 80 inplikatu behar da gutxienez, eta kontuan hartuko dira proiektuko ataza bakoitzean parte hartzen duten lagunak. Proiektu bakoitzak gutxienez 30 ordu izango ditu garatzeko eta gauzatzeko.

8. artikulua.- "Partekatuz ikasi" esperientziak.

1.- Irakasleak bikintasunerako prestatzeko modu bat dira: ikastetxe batek laguntza eta orientabidea eska diezaioke ikastetxe "tutore" bati, bikaintzat jotzen diren eta eredugarriak diren praktika pedagogikoen berri izateko eta haiek gauzatzeko lehenengo pausoak emateko.

2.- Ez da "Partekatuz ikasi" esperientzia jakin batean parte hartzeko eskaerarik onartuko baldin eta ikastetxeak esperientzia berean parte hartu eta horretarako dirua eskuratu bazuen 2014-2015 ikasturtean.

3.- II. eranskinean datoz ikastetxe eskatzaileen eskura dauden "Partekatuz ikasi" esperientziak eta erreferentziazko ikastetxeak. Eskabidean, ikastetxe bakoitzak adieraziko du zer "Partekatuz ikasi" esperientzian parte hartu nahi duen; gehienez, hiru adieraziko ditu, eta bere lehentasunaren arabera ordenatuko ditu. Ez da onartuko zerrendan ez dauden jardueretarako eskaerarik.

4.- "Partekatuz ikasi" esperientzia baterako eskabideak gehiegizkoak badira ikastetxe "tutoreen" ahalmenetarako, honako hauek izango dute lehentasuna, ikastetxe gehiagok izan dezaten metodologiaren berri: lehenik, aurrez esperientziarekin zerikusirik izan ez duten eta erreferentziazko ikastetxeekin edo prestakuntza-sareekin lotutako prestakuntza-saio eta mintegietan parte hartu ez duten ikastetxeek; bigarrenik, 2015-2016 ikasturteko deialdian hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektu bat egiteko finantzaketarik lortzen ez dutenek; eta, hirugarrenik, ikasle bekadunen ehunekorik handiena duten ikastetxeek. Ikastetxeek ez badute eskuratzen lehenengo adierazten duten esperientzian parte hartzeko finantzaketarik, bigarren adierazten duten esperientzian parte hartzeko diru-zuzkidura esleitzeko prozeduran parte hartuko dute, eta, ez badute eskuratzen bigarren adierazten duten esperientzian parte hartzeko finantzaketarik, hirugarren adierazten duten esperientzian parte hartzeko diru-zuzkidura esleitzeko prozeduran.



5.- “Partekatuz ikasi” esperientziek barnean hartuko dituzte garatzeko beharrezkoak dituzten prestakuntza- eta/edo berrikuntza-jarduera guztiak: bisitaldiak (hiru gutxienez ikastetxe eskatzailera, eta bat ikastetxe "tutorera"), batzarrak, ikasgelarako sarrera, materialen eskuratzea, prestakuntza-saioak... Akordio batean, “Partekatuz ikasi” esperientzia gauzatzeko lan-egitasmoa adostu eta sinatuko dute ikastetxe eskatzaileak eta "tutoreak", III. eranskineko ereduari jarraiki.

6.- Edukiaren arabera, departamentu batek, arlo batek, hezkuntza-etapa batek edo klaustro osoak edo haren zati batek parte hartu ahaliko dute “Partekatuz ikasi” esperientzietan. “Partekatuz ikasi” esperientzia bakoitzak 15 ordu izango ditu gutxienez garatzeko eta gauzatzeko.

9. artikulua.- Ziurtagiriak.

Baldin eta proiektuan parte hartzen duen irakasle batek proiektua garatzeko eta gauzatzeko finkatutako orduen % 80 gainditzen badu eta gauzatzeko memoria ontzat jotzen bada, proiektu mota bakoitzerako finkatutako orduak ziurtatuko zaizkio, ofizios eta banaka: 45 ordu proiektu integralei dagokienez, 30 ordu hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuei dagokienez, eta 15 ordu “Partekatuz ikasi” esperientziei dagokienez. Hala ere, ikastetxe batek ikasturte berean deialdi batean baino gehiagotan parte har dezakeenez, irakasle bakoitzak gehienez ere 90 orduren ziurtagiria jaso ahal izango du Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako deialdien barruan egindako prestakuntza-proiektuengatik.

10. artikulua.- Bikaintasuneranzko prestakuntza-proiektuak egiteko laguntzak

1.- Ikastetxeko zuzendaritza-taldearen ardura izango da proiektu integrala edo hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektua martxan jarraraztea, eta ikasketaburuarena haren bilakaera osoa koordinatzea, dela zuzenean, dela irakasle bat koordinatzaile izendatuta. Hori eginez gero, irakasle hori bera arduratuko da aldi behin ikasketaburutzari proiektuaren garapenari buruzko eta egindako ekintzei buruzko informazioa emateaz, eta zuzendaritza-taldearen bileretara joan ahal izango da horrekin zerikusia duten gaiak lantzen direnean.

2.- Ikastetxeak bere burua antolatzeko duten autonomiaren barruan, koordinatzaileen eskola-orduak egokitu ahal ditu proiektuetan egiten duten lanera, hala eskola-orduen kopurua nola horien banaketa; betiere, kasuan kasuko ikasturte-hasierako zirkularretan jasotako araudia betez eta ikastetxearen ordutegi-aukeren arabera.

3.- Proiektu integral edo hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiekturen bat onartzen zaien ikastetxe guztiak erreferentziako aholkulari bat izango dute gutxienez Berritzegunean, eta hura arduratuko da, ikastetxeko koordinatzailearekin batera, proiektuaren jarraipen- eta ebaluazio-lanak egiteaz.



4.- "Partekatuz ikasi" esperientziaren "tutorearena" egiten duen ikastetxeak egingo ditu prestakuntza-jardueraren ebaluazio- eta jarraipen-lanak, ikastetxe eskatzaileko koordinatzailearekin batera. Horretaz gainera, koordinatzaile horrek jardueraren garapenaren berri emango dio Berritzeguneko aholkulariari.

11. artikulua.- Eskaeren aurkezpena.

1. Eskabideak aurkezteko epea ebazpen hau EHAAn argitaratu eta biharamunean hasiko da, eta 2015eko maiatzaren 5ean bukatuko.

2. Elektronikoki aurkeztuko dira eskaerak, osorik eta behar bezala betetako eskabide normalizatu baten bidez. Eskabide-eredua euskadi.net webguneko egoitza elektronikoa honetan [egongo da eskuragarri: https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/bikaintasunerantz-2015](https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/bikaintasunerantz-2015). 1. artikuluko proiektu mota baterako edo gehiagorako eskaera egin ahalko dute ikastetxeek.

3. <http://www.proiektuak.net> estekako aplikazio informatikoan, proiektu integralaren edo hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuaren datu teknikoak eta aurrekontuari buruzkoak adieraziko dituzte ikastetxeek, eta, dagokionean, dokumentu bat erantsiko dute, "Partekatuz ikasi" esperientzietan parte hartzeko arrazoiak azaltzeko. Era berean, ikastetxeko hobekuntza-plana erantsiko dute.

4. Eskabideak ez badaude osatuta, bete gabe utzitakoa betetzeko edo falta diren agiriak aurkezteko eskatuko zaie ikastetxeei, eta hamar eguneko epea emango zaie horretarako. Era berean, ohartaraziko zaie eskaerari atzera egiten dutela joko dela horrelakorik egiten ez badute.

12. artikulua.- Kudeaketa-organoa.

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak kudeatuko du deialdi honetako diru-zuzkidura esleitzeko prozedura.

13. artikulua.- Ebaluazio-batzordea.

Ebaluazio-batzorde bat eratuko da aurkezten diren eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko, eta hauek osatuko dute batzorde hori:

- Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako Irakasleen Hobekuntza Zerbitzuko arduradunak, batzordeburu.
- Hezkuntza Berritzatzeko Lurraldeburutzen arduradunak edo haiek izendatutako ordezkariak.



- “Partekatuz ikasi” esperientzia bakoitzean erreferente diren ikastetxe edo sareetako ordezkari batek edo batzuek.
- Berritzeguneko zuzendari batek, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatuta.
- Irakasleoa Hobetzeko Zerbitzuko teknikari batek, idazkari-lanak egingo dituen, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak izendatua.

14. artikulua.- Eskabideak aukeratzea.

1.- Proiektuak aukeratzeko, I. eranskinean eskaerak baloratzeko finkatzen den baremoa hartuko da kontuan. Esleipen-prozeduratik kanpo geldituko dira gutxienez 12 puntu lortzen ez dituzten proiektuak.

2.- Proiektuak egokiro baloratzeko, ebaluazio-batzordeak ikastetxeek aurkeztutako proiektuei buruzko txostenak eskatu ahalko dizkio zonako Berritzeguneari.

3.- “Partekatuz ikasi” esperientziei dagokienez, zonako Berritzeguneari txosten bat egingo du, honako hauek bilduko dituena: ikastetxe bakoitzak esperientziaren edukian egindako bidea, parte hartzen ari den proiektuen zerrenda eta parte-hartzearen egokitasunari buruzko balorazio bat, aurreko gaiak aintzat hartuz.

4.- Ebaluazio-batzordeak egingo ditu ebazpen-proposamenak, eta Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariari helaraziko dizkio. Onartzeko proposatzen diren berrikuntza-proiektu integralak, hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak eta “Partekatuz ikasi” esperientziak adieraziko ditu proposamenean, baita bakoitzari ematea proposatzen duen zenbatekoa ere. Era berean, baztertutako eskabideen zerrenda sartuko du, haiek baztertzeko arrazoiak aipatuta.

15. artikulua.- Ebazpena.

1.- Ebaluazio-batzordearen proposamena aztertutakoan, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak ebatziko du prozedura, sei hilabete gehienez. Ebazpena elektronikoki jakinaraziko zaie interesdunei, eta onartutako berrikuntza-proiektu integralak, hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak eta “Partekatuz ikasi” esperientziak adieraziko ditu, baita bakoitzari emandako zenbatekoa ere. Era berean, lurralde bakoitzeko bi ordezkoren zerrenda bat erantsiko da, puntu kopuruaren arabera, ebazpena eman ondoren ikastetxeek parte hartzeari uko egiteagatik edo baldintzak ez betetzeagatik parte hartzeari utziko baliote ere. Gainera, baztertutako eskabideen zerrenda sartuko da, haiek baztertzeko arrazoiak aipatuta.

2.- Ikastetxe interesdunek hamabost eguneko epea izango dute, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik, haren aurkako erreklamazioak aurkezteko. Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak ebatziko ditu erreklamazioak.



3.- Baldin eta ebazpena jakinarazitakoan esleitutako zenbatekoari uko egiten badio prestakuntza-proiektuetarako diru-zuzkiduraren onuradunen batek, lurralde bereko ordezkoen zerrendako ikastetxeak ordezkatu du.

4.- Gehieneko epea amaitu eta prozeduraren ebazpena jakinarazten ez bada, interesdunek ulertu ahal dute eskabidea ukatu zaiela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikulua onduetarako.

16. artikulua.- Zuzkiduren bateraezintasuna.

Diru-laguntza hauek bateraezinak dira helburu bererako beste edozein laguntzarekin, nahiz iturri publikoetakoak nahiz pribatuetakoak.

17. artikulua.- Zuzkiduraren ordainketa.

Diru-zuzkidurak bi agindutan ordainduko dira: lehenik, guztira onartutakoaren % 75, ebazpena jakinarazi eta hilabeteen, eta, bigarrenik, gainerakoa, aurkezten diren egiaztagiriak aztertu eta proiektuaren memoria onzat baloratutakoan.

18. artikulua.- Hautatutako ikastetxeen berriazko betebeharrak.

Honako betebeharrak hauek izango dituzte deialdi honetako zuzkiduren onuradun diren ikastetxeek:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, hamar eguneko epean –deialdiaren ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera– ikastetxe onuradunek berriaz eta idatziz diru-laguntzari uko egiten ez badiote, onartutzat joko da.

b) Proiektua Ikastetxeko Urteko Planean sartzea.

c) Zertarako ematen den zuzkidura, horretarako erabiltzea; hau da, onartutako berrikuntza-proiektu integrala, hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektua edo “Partekatuz ikasi” esperientzia eta bertako jarduerak egiteko erabiltzea.

d) Tokiko Berritzegunearekin, Hezkuntza Ikuskaritzarekin eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin kolaboratzea proiektuaren eta/edo esperientziaren aholkularitza-, ebaluazio-, jarraipen- eta kudeaketa-lanetan.

e) Ekonomia Kontrolerako Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak beren funtzioak betetzeko eskatutako informazio guztia bidaltzea, deialdi honen kontura jasotako dirua dela eta.



f) Proiektua eta/edo esperientzia gauzatu izana justifikatzeko agiriak ezarritako epean eta moduan aurkeztea.

g) Berrikuntza-proiektu integralak egiteko dirua esleitzen zaien ikastetxeei dagokienez, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin eta EHUREkin elkarlanean aritzea, etorkizuneko irakasleak ikastetxe berritzaileetako benetako hezkuntza-praktiketan integra daitezen laguntzeko (Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako graduetakoko praktiketako ikasleak onartzea, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleak Prestatzeko Unibertsitate Masterreko praktiketako ikasleak ere).

19. artikulua.- Jardueraren justifikazioa.

1.- Jarduera, proiektu eta/edo esperientziaren bat onartzen zaien ikastetxeek haren bilakaerari eta ebaluazioari buruzko memoria bat aurkeztuko dute 2016ko ekainaren 15a baino lehen, elektronikoki, proiektuak.net helbidearen bidez.

2.- Egindako jardueren zerrenda eta helburuen lorpen-maila sartuko dira memorian, baita jarduera bakoitzaren kostua, betiere, onartutako jarduerak eragina bada. Ikastetxeak gastuen fakturak, erreziboak eta beste edozein egiaztagir gordeko du, Administrazioak eskatzen badio ere. Memoria elektronikoki osatuko da, proiektuak.net aplikazioaren bidez, eta gainerako agiriak gehituko dira.

3.- Gainera, memoriak barnean hartuko du ikastetxe bakoitzeko zuzendariaren ziurtagiri bat, berariaz zehazten duena ikastetxeko irakasleek guztira egindako orduen zer ehunekotan parte hartu duen irakasle bakoitzak.

20. artikulua.- Jarraipena eta ebaluazioa.

1.- Ikasturte amaieran, ikastetxe onuradun bakoitzari dagokion Berritzeguneko batzorde pedagogikoak txosten bat egingo du aukeratutako proiektu integralen eta hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuen bilakaerari buruz. Txosten horiek Irakaslegoaren Hobekuntzarako Zerbitzuari eta Hezkuntza Berritzatzeko Lurraldeburutzari igorriko zaizkio, eta ikastetxe bakoitzaren eskura egongo dira bertan.

2.- Baldin eta ikasturtean zehar gorabehera nabarmenik badago proiektu integral edo hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuen baten bilakaeran, zonako Berritzeguneko zuzendaritzak Lurraldeburutzari eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari jakinaraziko die, Zuzendaritzak deialdi hau egoki betetzeko neurriak hartu ahal izan ditzan.

3.- "Partekatuz ikasi" esperientzietan "tutorearena" egiten duten ikastetxeek esperientzien bilakaerari buruzko txosten bat egingo dute ikasturte bukaeran, eta ikastetxe bakoitzak izandako parte-hartzea ebaluatuko dute. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari helaraziko diote txostena, 2016ko ekainaren 15a baino lehen.



4.- Ikastetxeetara egiten dituen bisitaldietan, Hezkuntza Ikuskaritzak kontrolatuko du zenbateraino betetzen diren aukeratutako proiektu integralak eta hezkuntza berritzatzeko prestakuntza-proiektuak —Ikastetxeko Urteko Planean sartuko dira proiektuak—, eta, betetzen ez badira, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari jakinaraziko dio.

21. artikulua.- Ez-betetzeak.

1.- Baldin eta egiaztatzen bada ikastetxeek ez dituztela betetzen diru-zuzkidura ematea eragin duten baldintzak, Euskal Herriko Diruzaintza Nagusiari itzuliko diote dirua.

2.— Dirua itzuli beharra dago hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak jakitea diruz hornitzen diren proiektuak ez direla gauzatu edo ez direla iritsi diseinatzerakoan aurreikusitako minimora.
- b) Onuradunek ez betetzea agindu honen 18. artikuluko betebeharrak edo EAEko aurrekontuetako laguntzen onuradunek duten beste edozein.

22. artikulua.- Datuak babestea.

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearekin bat etorriz, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, *Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzako Prestakuntza eta Berrikuntza Proiektuak* izeneko fitxategian sartuko dira, 19. zenbakiaz, diru-laguntzen deialdi hau kudeatzeko eta deialdira biltzen direnei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo behar da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Era berean, deialdi honetako parte-hartzaileek baimena ematen diote Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari aurkezten dituzten dokumentuak egiazkoak diren egiazta dezan beste erakunde publiko batzuetan.

Vitoria-Gasteizen, 2015eko martxoraren 18an.

Hezkuntza sailburuordea
ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO



I. ERANSKINA

ESKAERAK EBALUATZEKO BAREMOA

1. Proiektua ikastetxeko hobekuntza-planaren ezaugarrietara egokitzea:	8 puntu, gehienez
1.1. - Proiektuaren eta hautemandako beharrianen arteko lotura.....	2 puntu, gehienez
1.2. Diziplinarteko planteamendua garatzea.....	2 puntu, gehienez
1.3. Proposatutako jardueren ekarpenak, egin beharreko aldaketa metodologikoetarako.....	2 puntu, gehienez
1.4. Prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak hobekuntza-planaren eremu hauekin duten lotura: curriculum eta metodologia; antolamendua eta funtzionamendua; komunitatea (ikastetxearen norabidea, bizikidetzeta...) eta garapen profesionala edo prestakuntza.....	2 puntu, gehienez
2. Proiektua testuinguruan jartzea eta justifikatzea:	6 puntu, gehienez
2.1. Prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren helburuen argitasuna eta zehaztasuna.....	Puntu 1, gehienez
2.2. Zer lotura duen diziplinarteko planteamenduen bidez oinarritzko gaitasunak garatzearekin.....	2 puntu, gehienez
2.3. Elementu globalizatzaileak sartzea, kontuan hartzen dutenak irakasleen, ikasleen eta eskola-komunitateko beste kide batzuen inplikazioa.....	Puntu 1, gehienez
2.4. Prestakuntza- eta berrikuntza-jarduerak zehaztea eta zuzenean aplikatzea ikastetxearen funtzionamenduan.....	Puntu 1, gehienez
2.5. Epe erdirako ibilbide estrategiko bat zehaztea.....	Puntu 1, gehienez
3. Proiektuaren bideragarritasuna, aplikagarritasuna eta kudeaketa:	5 puntu, gehienez
3.1. Proiektuan proposatutako jarduerak garatzeko aurreikusitako antolamendua	Puntu 1, gehienez
3.2. Proiektuaren epeak eta faseak zehaztea: inplikaturako irakasleen arteko lankidetzeta-uneak, eta ikastetxearen ohiko dinamikarekin duen erlazioa.....	Puntu 1, gehienez
3.3. Koordinazio-egiturak ezartzea eta ardurak banatzea.....	Puntu 1, gehienez
3.4. Proposatutako jardueren prestakuntza- eta berrikuntza-alderdiak argiki bereiztea.....	Puntu 1, gehienez
3.5. Proiektua garatzeko eskualdeko Berritzegunearen prestakuntza-eskaintza eta erakundeen beste prestakuntza-eskaintza batzuk erabiltzea.....	Puntu 1, gehienez
4. Emaidak ebaluatzeke plana:	4 puntu, gehienez
4.1. Ebaluatzeke irizpideak definitzea, eta prestakuntza- eta berrikuntza-jardueren helburuak betetzen diren edo ez agerian jartzen duten adierazleak definitzea.....	2 puntu, gehienez
4.2. Ebaluatzeke tresnak eta uneak zehaztea.....	2 puntu, gehienez
5. Aurrekontua justifikatzea:	2 puntu, gehienez
5.1. Eskatutako aurrekontua koherentea izatea lan-egitasmoarekin eta ikastetxeko baliabideekin	Puntu 1, gehienez
5.2. 5.2. Eskatutako dirua nola banatuko den azaltzea.....	Puntu 1, gehienez
6. Aukera- eta eskubide-berdintasuna	5 puntu, gehienez
6.1. Ikastetxeak "Hamaika Esku" egitasmoan parte hartzea.....	5 puntu
6.2. Ikasleen % 60 baino gehiago bekadunak izatea.....	2 puntu
6.3. Ikasleen % 45 eta % 60 artean bekadunak izatea.....	Puntu 1
6.4. Ikasleen % 30 eta % 45 artean bekadunak izatea.....	0,5 puntu
Puntuak, guztira:	30 puntu



II. ERANSKINA

“Partekatuz ikasi” ESPERIENTZIAK

1. ESPERIENTZIA

Izenburua	Berdintasunezkoago eta seguruago ikastetxeak
Edukia	<p>Gaur egun Hezuntza sistemak dituen erronkeen artean bat da ikastetxeetan berdintasunean bizitzen ikastea eta txiki-txikitatik generoaren indarkeria prebenitzea.</p> <p>Hezkidetzan oinarritutako eskola baten bidean aurrera egiteko, guztiz beharrezkoa da ikastetxeek lan egitea era integratuan eta antolatuan, genero perspektiba sartzeko hainbat esparrutan: euren erabakietan, curriculumetan, metodología-proposamenetan, euren arteko harremanetan, antolamenduan, materialetan, komunikazioetan e.a. Beharrezkoa da, baita ere genero- biolentzia edota sexismoa oinarrian duen edozein biolentzia prebenitzeko, eta hari erantzuteko ere.</p> <p>Eraldaketa prozesu honetan behar-beharrezkoa da hezkuntza komunitate osoaren (familiak, irakasleak, ikasleak, ez irakasleak...) inplikazioa eta partaidetza izatea, eta baita beste giza eragileen konplizitatea bilatzea ere.</p> <p>Eskola berdintasunezkoago eta seguruagoa eraikitze bide horretan, badaude ikastetxe batzuk euren esperientziak partekatzeko prest:</p> <p>1.- - CEIP Lekeitio HLHI (Lekeitio)</p> <ul style="list-style-type: none"> Egiturak eta familien, ikasleen, irakasleen, ez irakasleen, giza eragileen... partaidetza proiektuaren garapenean. Eskolako patioaren antolamendua, berdintasuna kontuan izanda. Generoaren indarkerian sozializazioaren prebentzioa: 0 tolerantzia 0 urtetik; persona biolentoek eta portaera biolentoek izanten dute erakargarritasuna neutralizatzeko proposamenak; maskulinitate eredu berriak... <p>2.- CEIP El Casal HLHI (Gallarta)</p> <ul style="list-style-type: none"> Egiturak eta familien, ikasleen, irakasleen, ez irakasleen, giza eragileen... partaidetza proiektuaren garapenean. Eskolako patioaren antolamendua, berdintasuna kontuan izanda. Generoaren indarkerian sozializazioaren prebentzioa: 0 tolerantzia 0 urtetik; persona biolentoek eta portaera biolentoek izanten dute erakargarritasuna neutralizatzeko proposamenak; maskulinitate eredu berriak... <p>3.- IES Gabriel Aresti BHI (Bilbao)</p> <ul style="list-style-type: none"> Ikastetxean egiturak eta partaidetza: Hezkidetzatza batzordea; nesken taldea; Batzorde pedagogikoa... Berdintasunerako ekarpenak arlo eta asignatura ezberdinetatik, eta azaroaren 25ko, martxoaren 8ko eta maiatzaren 17ko proposamenetatik. Ikastetxearen Genero- indarkeria protokoloa.
Erreferentea	
Ikastetxeak	CEIP Lekeitio HLHI (Lekeitio) CEIP El Casal HLHI (Abanto-Zierbena) IES Gabriel Aresti BHI (Bilbao)
Argibide gehiago	



2. ESPERIENTZIA

Izenburua	Gure ikastetxeko elkarbizitza giroa hobetzeko ereduak, estrategiak eta tresnak.
Edukia	<p>- Ekimen honen bitartez, elkarbizitza esparruan praktika onak dituen ikastetxeak tutoretza lana egingo du eremu horretan hobetzeko asmoa duten ikastetxeekin, praktika arrakastatsuak ezagutaraziz eta testuinguru berrietara egokituz.</p> <p>- Lan eremu horren helburuak honako hauek dira:</p> <p>a.- Ikastetxe hartzaileei elkarbizitza giroa hobetzeko estrategia eta eredu zehatzak eskaintzea, beti ere euren beharrezenei egokituak.</p> <p>b.-Ikastetxe hartzaileei proiektua aurrera eramateko behar dituzten tresnak, informazioa eta aholkularitza ematea.</p> <p>c.- Elkarbizitzaren hobekuntzan hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzea areagotzen duten ereduak proposatzea eta lantzea.</p> <p>Ikastetxe tutoreen eskaintzak ondoko esperientzia hauei lotzen dira:</p> <p>1.- IES Koldo Mitxelena BHI (Vitoria – Gasteiz)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearen bizitzan parte hartzeko eta pertenezia sentimendua areagotzeko estrategiak ikasle, irakasle eta familiengan. • Ikastetxearen elkarbizitza giroa bultzatzeko Zuzendaritza Taldearen lidergo lana: hartu daitezkeen erabakiak eta sortu daitezkeen egiturak. • Elkarbizitza alorrean irakasleen inplikazioa handitzeko estrategiak: motibazioa, arduren eta lanen banaketa,... <p>2.- CEP Zamakola LHI. (Bilbao)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Patio hezitzailearen antolamendua. • Gatazken kudeaketa positiborako tresnak: adostokia eta bitartekaritza. • Elkarbizitzaren aspektu sistematiko eta orokorren lana Tutoretza Planetik bideratua. <p>3.- IES Axular BHI (Santurtzi)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Harrera Plana: ikasturte hasierako ekimen nagusia. • Ziberbullying-a: ikasleak, prebentzio jardueren protagonistak. • Ikastetxearen bizitzan ikasleen parte-hartzea gehitzeko eredu eta jarduerak. <p>Oharra: Ikastetxe eskatzaileak, proiektua justifikatzearekin batera, zehaztu dezake zein praktika egin nahi duen. Ahal den neurrian, lehentasun hori kontuan izango da esleipena egiterakoan.</p>
Erreferentea	
Ikastetxeak	IES Koldo Mitxelena BHI (Vitoria-Gasteiz) CEP Zamakola-Juan Delmás LHI (Bilbao) IES Axular BHI (Santurtzi)
Argibide gehiago	



3. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikasgela, ezagutza sortu eta partekatzen duen komunitatea
Edukia	<p>Helburuak:</p> <p>Helburua da ikasgela begiratzeko eta ulertzeko modua aldatzea, ikuspuntu sozial eta komunikazioan oinarrituta.</p> <p>Ikasleen eskubideak, eskolaren funtzioak, irakaslearen rola... sinesmen horien inguruan hausnartzea.</p> <p>Norbere praktikaren inguruan hausnarketa egin.</p> <p>Ondorioak atera, erronka berriak onartu eta horiei buruz erabakiak hartu.</p> <p>Euskarriak:</p> <p>Ikasleen gogoak eta proiektuak</p> <p>Ikasgela Gizarte esparru den aldetik</p> <p>Ezagutza, ikuspuntu kulturaletik</p>
Erreferentea	CEIP Antzuola HLHI
Ikastetxeak	CEIP Antzuola HLHI (Antzuola)
Argibide gehiago	



4. ESPERIENTZIA

Izenburua	Proiektuen bidez Haur Hezkuntzako ikasle guztiak elkarlanean.
Edukia	<p>Helburuak</p> <p>Proiektuak nola planifikatzen ditugun Haur Hezkuntzako irakasleen taldeko erabakietatik abiatuz:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen interesa abiapuntutzat hartu. • Proiektuaren lanak mailaz-maila banatu. • Proiektuko gai jakinaz gain, interesgarriak zaizkigun jarduerak era naturalean txertatu: <ol style="list-style-type: none"> 1.- Adin anitzeko ikasleen arteko harremanak landu. Arte-tailerra abiapuntutzat hartu. 2.- Adimen emozionala 3.- Zientzia esperimentazioa 4.- Jolas kooperatiboak 5.- Jolasak hizkuntzaren ahozko transmisioa emateko ikasleen eta familien artean. • Ebaluazioa egin eta hobekuntzak proposatu aurrera begira
Erreferentea	CPI Zaragueta Herri Eskola IPI
Ikastetxeak	CPI Zaragueta Herri Eskola IPI (Orio)
Argibide gehiago	



5. ESPERIENTZIA

Izenburua	Proposamen metodologikoak eta estrategia praktikoak ikasgelan gaitasunak garatzeko.
Edukia	<p>Programazioa testuinguru sozial, egonkor eta osagarrien bidez: Ikaslearen interesa jaso egiten dute eta lanak esanguratsuak bilakatzen dituzte. Elkarrekintza soziala bultzatzen dute. Elkarrekintzari esker eskema kontzeptualak eta jokabideak aldatzen doaz, eta aldi berean, norberaren eta taldearen identitatea garatzen da. Zeharreko zein arloetako gaitasunak garatzea ahalbidetzen dute. Aniztasunari erantzunaren ikuspuntutik, ikasleari bere erritmoan eta mailatik aurreratzea ahalbidetzen diote.</p> <p>Ikastetxean garatuko diren ekintzak:</p> <p>Ikastetxean, egituren diseinua (espazioak, denborak, baliabideak, esku-hartze irizpideak,...) eta baliabideen hornidura curriculum-arlo desberdinetan aldaketa metodologikoak ahalbidetzeko.</p> <p>Prozesuen jarraipena eta tutore ikastetxeetako irakasleekin batera jartzea.</p> <p>Ebaluazioa eta jarraipenerako proposamenak.</p> <p>Esku-hartze eremuak:</p> <p>Hasierako prestakuntza, hezkuntza-asmoa, metodologia eta antolamendu alderdien inguruan.</p> <p>Ikastetxe eskatzaileari bisita. Diagnosia eta esku-hartze proposamena. Ikastetxean bertan, proposamen praktikoaren jarraipena eta aholkularitza.</p> <p>Tutore-ikastetxeari edo sareko beste ikastetxeei bisita, martxan jarriko diren jarduerak edo testuinguruak ezagutu ahal izateko.</p>
Erreferentea	Amara Berri Sarea
Ikastetxeak	CEIP Landako HLHI (Durango) CEIP Gorniz HLHI (Gorniz) CEIP Murumendi HLHI (Beasain)
Argibide gehiago	www.amaraberrisarea.hezkuntza.net Amara Berri Ikastetxe-Sarearen Aholkularitza-taldea 943457014



6. ESPERIENTZIA

Izenburua	Teknologiak eskola-komunitatearen zerbitzura. Hedabideak eskolan.
Edukia	<p>Teknologia digitalen erabilpenak hausnarketa pedagogikoa eskatzen du eskola jardueretan integratu ahal izateko.</p> <p>Ikas daitezke modu ezberdin batean teknologia berriak? Nola gara daitezke teknologia-konpetentziak eskolan? Nola ezarriko zenituzke eguneroko lan praktikoan? Ikasleek interesez beterik eta modu motibagarri batean lan egin dezaten lor dezakegu? Nola egin dezakegu eskolan burutzen diren guztiek zertarako bat izan dezaten eta benetako irteera bat kanporantz? Nola gara dezakegu gure ikasleen sormen boterea?</p> <p>Prensa, telebista, irratia eta blog edo web orriak sortzea eskola komunitateari bideratutako zerbitzutzat hartzen ditugu, ikasleek kudeatzen dituztenak eta adin eta ziklo guztietako ikasleen elkarrekintza sortzen dituztenak. Hedabideak ikaslearen motibazioan funtsezko baliabide bezala ulertzen ditugu eta horrek benetako zertarako bat ematen die jarduera guztiei.</p> <p>FMn eman eta zuzenean edozein momentutan eskolako web orrian entzun daitekeen eskola irrati bat. Albisteak, inkestak, elkarrizketak eta departamentu ezberdinetan burutzen diren lanak biltzen dituen eta argitaratzen den egunkaria. Eskola guztira irekia izanik, antzerkiak, esperimenduak eta eguneroko jarduerak grabatzen, editatzen eta etxean ikusteko interneten zintzilikatzen dituen telebista bat. Ikasle beraiek buruturik, telebistan editatutako programaz, irrati eman eta egunegun eskolan gertatutakoaz hornitutako web orri bat.</p> <p>Esku-hartze eremuak:</p> <p>Hasierako prestakuntza, hezkuntza-asmoa, metodologia eta antolamendu alderdien inguruan.</p> <p>Ikastetxe eskatzaileari bisita. Diagnosia eta esku-hartze proposamena. Ikastetxean bertan, proposamen praktikoaren jarraipena eta aholkularitza.</p> <p>Tutore-ikastetxeari edo sareko beste ikastetxeei bisita, martxan jarriko diren jarduerak edo testuinguruak ezagutu ahal izateko.</p>
Erreferentea	Amara Berri Sarea
Ikastetxeak	CEIP Etorkizuna Ikastola HLHI (Abanto-Zierbena) CEIP Amorebieta-Larrea HLHI (Amorebieta-Etxano) CEIP Amara Berri HLHI (Donostia-San Sebastián)
Argibide gehiago	www.amaraberrisarea.hezkuntza.net Amara Berri Ikastetxe-Sarearen Aholkularitza-taldea 943457014



7. ESPERIENTZIA

Izenburua	Gelako jarduerak: Talde elkarreagileak eta tertulia dialogikoak
Edukia	<p>Gaur egun gure geletan dibertsitate handia dago eta garatu behar diren gaitasunak konplexuak dira. Hortaz, beharrezkoa da ekintza arrakastatsuak martxan jartzea, edozein ingururako, edozein ikasleentzat eta gaitasun desberdinak lantzeko frogatuta dauden ekintzak.</p> <p>INCLUD-ED proiektuaren arabera, ekintza bik betetzen dituzte baldintza horiek: bata da talde elkarreagileak eta bestea, tertulia dialogikoak. Ekintza horien bitartez elkarrekintzak areagotuz eta aberasteaz gain, benetako lan denbora handitzen da. Dinamika bakar batean, ikasle guztien ikasketak lastertu egiten dira eta, aldi berean, elkartasuna, ardura, errespetua eta elkarri laguntzea garatzen da.</p> <p>Talde elkarreagileak: Irakasleak talde heterogeneotan antolatzen du gela eta beste hainbat jarduera prestatzen dira barruko talde kopuru beste. Ariketa bakoitza heldu batek dinamizatzen du ikasleen arteko elkarrekintzak bultzatuz, elkarri lagunduz eta azalduz, denak ariketa egin dezaten lortzeko. Honela ezagutzak eskuratzeaz gain, ikasleek azalpenak ematen, eztabaidatzen, argumentatzen, entzuten, ikasgaiak gehiago ikasten dute: zekienak azaltzerakoan hobeto ulertzen duelako eta ez zekienak hobeto ulertzen duelako ikasi berri batek azaltzen dionean. Taldeek ariketa desberdinetatik errotatzen dute 15-20 minuturo, Denek ariketa guztietatik pasatu arte. Honela ikasle guztiak denbora osoan ikasten egon daitezke lortzen da.</p> <p>Tertulia dialogikoak: Hainbat tertulia mota daude: literatura unibertsaleko klasikoen literatura-tertuliak edo dialogikoak, tertulia kurrikularak, tertulia pedagogikoak, tertulia musikalak eta artistikoak.</p> <p>Tertulia literarioak izan dute esperimentaziorik zabalena. Ikasleek literatura unibertsaleko obra onenak irakurtzen dituzte eta horien inguruan hitz egiten dute. Tertulia garatzeko, parte-hartzaileek aurrez aukeratu duten testuko pasarteak azaltzen dute beste kideen aurrean, interesgarria iruditu zaielako edo gogoeta piztu duelako euren. Testu klasikoen irakurketa oinarri hartuta, ikasleen arteko elkarrekintza eta elkarrekintzak sortzen dira, eta gogoetak eta argudioak euren egunerokotasunarekin erlazionatzen dira. Ekintza horren bidez zera lortzen da: irakurmena, ahozko adierazpena eta entzumena hobetzea; hitzen kopurua handitzea; baloreak, sentimenduak eta emozioak garatzea; eta zentzua sortzea.</p>
Erreferentzia	Ikas komunitateak
Ikastetxeak	CEIP Zaldupe HLHI (Ondarroa) CEIP Maiztegi HLHI (Iurreta) CEIP Orokietak HLHI (Zarautz)
Argibide gehiago	https://ikaskom.wikispaces.com/ http://utopiadream.info/ca/investigacion/includ-ed/



8. ESPERIENTZIA

Izenburua	Komunitate osoaren ekarlana ikasle guztien arrakasta eskolarra eta elkarbizitzaren hobekuntza lortzeko
Edukia	<p>Gizarte eraldaketak eskolen eraldaketa eskatzen du, denen artean (familia, irakasleria eta ikasleak) ahaleginak batu eta ikasle guztien arrakasta lortzeko eta elkarbizitza hobetzeko. Denen batasunarekin egoki erantzun ahalko diogu handitzen doan aniztasunari eta baita gaurko gizarteak planteatzen dituen erronkei ere.</p> <p>Komunitatearen inplikazio prozesua: batzorde mistoak. Komunitate osoak indarrak batu egiten ditu helburu komunak definituz. Elkarrekin egindako ametsak lan hori errazten du. Ametsak aurrera eramateko, irakasleak, ikasleak, familiak eta beste eragile batzuk ikastetxean inplikatzeko dira lan batzorde mistoen bitartez. Lehentasunak ezartzen dira eta komisio bakoitzak ekintzak planifikatzen ditu eta aurrera eramaten arduratzen da.</p> <p>Irakurketarako gidaritza: Irakurketaren ikasketa sustatzeko adin desberdinetako ikasle bikotearen arteko ekarlana antolatzen da. Beste ikasgaietan ere antolatzen da. Ikasketa hobetzeaz gain, elkartasuna, erantzukizuna eta elkarbizitza sustatzen da.</p> <p>Gatazkak prebenitzeko eredu dialogikoa. Komunitate osoa inplikatzeko da gatazkei heldu eta aurre egiteko. Gatazken erroak aztertzen dira eta horiek prebenitu eta aurre egite aldera, hartu beharreko neurriak adosten dira. Horretarako, ikasleen arteko arauak adosteko, elkarbizitza errazteko, seguruagoak sentitzeko eta ikastetxearen parte direla sentitzeko, asanbladak, prestakuntza-jarduerak eta hitz egiteko esparru gehiago antolatzen dira. Ikasleek arau horiek betetzeko eta aurrera eramateko konpromisoa hartzen dute. Ikastetxeetan zera sustatzen da: 0 urtetatik 0 biolentzia; jarrera bortitzen aurrean erakarpen eza; prebenitzeko, hornitzen dituzten sentimenduak (adiskidetasuna, elkartasuna....)</p>
Erreferentzia	Ikas komunitateak
Ikastetxeak	CEIP Elejabarri HLHI (Bilbao) CEIP Pedro M. Otaño HLHI (Zizurkil) CPI Sansomendi IPI (Vitoria-Gasteiz)
Argibide gehiago	https://ikaskom.wikispaces.com/ http://utopiadream.info/ca/investigacion/includ-ed/



9. ESPERIENTZIA

Izenburua	IK/KI programa: Talde kohesioa eta egitura kooperatiboak gelan.
Edukia	<p>IK/KI programa zer da?</p> <p>Ikasgelan ikaskuntza kooperatiboa aplikatzen duen programa da. Ikuspegi inklusiboa ardatz hartuta, ikasle orok arrakasta izateko eskubidea duela azpimarratu nahi du. IK/KI programa hiru eremutan egituratzen da eta baliabide ugari ematen ditu edukiak lantzeko:</p> <p>A eremua: Taldearen kohesioa. B eremua: Talde-lana baliabide gisa. C eremua: Talde-lana eduki gisa.</p> <p>Esperientziaren garapena:</p> <p>A eremuak taldeak kohesionatzea du helburu; horretarako, taldean lan egiteko prestatzera, kooperaziorako jarrera barneratzera eta pixkanaka ikasketa komunitate txiki bat bilakatzera bideraturiko jarduerak landuko dira.</p> <p>Taldean lan egitearen garrantzia eta eraginkortasuna erakusteko jarduerak dira.</p> <p>Talde osoaren kohesio lortzeko bost motatako dinamikak identifikatuko dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabakiak hartzerakoan eztabaida eta adostasuna bultzatzeko taldeko dinamikak. • Elkarren arteko harremana, elkar ezagutzea eta taldearen barruan distentsioa bultzatzeko taldeko dinamikak. • Ikasle arruntek urritasuna duen kideren baten barne sartze prozesuan parte har dezaten eta elkar ezagut dezaten bultzatzeko estrategiak eta dinamikak. • Taldeko lanaren garrantzia eta eraginkortasuna erakusteko jarduerak. • Ikasleak modu kooperatiboan lan egiteko prestatu eta sentsibilizatzeko jarduerak. <p>Taldearen kohesioa landu ostean, B eremua lantzea proposatuko da: ikasgelan ikasleen jardura lankidetzan egituratuko da, egitura eta teknika kooperatiboez baliatuta.</p>
Erreferentea	IK/KI: "Ikasteko kooperatu / Kooperatzen Ikasi"
Ikastetxeak	CEIP AZPEITIKO IKASTOLA-KARMELO ETXEGARAI LHI (Azpeitia) – Haur Hezkuntzako esperientzia. CEIP GAIN-ZURI LHI (Urretxu) – Lehen Hezkuntzako esperientzia. IES OLAZABAL BHI (Legazpi) – Bigarren Hezkuntzako esperientzia.
Argibide gehiago	Ikasketa kooperatiboari buruzko II. simposiuma IK/KI I. topaketak



10. ESPERIENZIA

Izenburua	IK/KI programa: Metodologia kooperatiboa gure ikastetxean txertatzen.
Edukia	<p>IK/KI programa zer da?</p> <p>Ikasgelan ikaskuntza kooperatiboa aplikatzen duen programa da. Ikuspegi inklusiboa ardatz hartuta, ikasle orok arrakasta izateko eskubidea duela azpimarratu nahi du. IK/KI programa hiru eremutan egituratzen da eta baliabide ugari ematen ditu edukiak lantzeko.</p> <p>A eremua: Taldearen kohesioa B eremua: Talde-lana baliabide gisa C eremua: Talde-lana eduki gisa</p> <p>Esperientziaren garapena:</p> <p>Ikasgelan ikasle desberdinekin batera lan egiteko aukera paregabea eskaintzen du IK/KI programak. Bermatu behar dugu ikasle ororen ikasteko eta parte hartzeko aukera berdina, horregatik neska-mutilen arteko elkarrenergina sustatu behar da.</p> <p>Ikastetxe tutoreek eskainiko dute, alde batetik, Ikaskuntza kooperatiboan egindako ibilbidea, eta bestetik, haien errealitatera egokitutako IK/KI programaren garapena. Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako esperientzia.</p>
Erreferentea	IK/KI: "Ikasteko kooperatu / Kooperatzen Ikasi"
Ikastetxeak	CEIP PELLO ERROTA HLHI (Asteasu) CEIP ZUMADI HLHI (Amezketeta) CEIP ONGARAI HLHI (Ermua)
Argibide gehiago	Ikasketa kooperatiboari buruzko II. Simposiuma IK/KI I. topaketak



11. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikastetxea kudeatzeko estrategiak.
Edukia	<p>Gaur egungo gizarteak duen eskakizun maila eta ikastetxeen konplexutasun handia kontuan hartuta, ezinbestekoa da eguneroko lana ondo kudeatzea eta sistematizatzea.</p> <p>Ikastetxe batek hainbat arlo kudeatu behar ditu: egin beharrekoak zerrendatu, arduradunak izendatu, denborak zehaztu, baliabideak antolatu...</p> <p>Espereintzia horrek honako onurak eskaintzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxearen koherentzia eta kohesioa. • Ikasturte hasieratik irakasleen elkarlana adostea eta partaide berrien integrazioa bideratzea. • Ahaleginak eta denbora aurreztea. • Kalitatezko lana ahalbidetzea, irizpideak finkatu eta etengabe berritzeko bideak irekitzea. <p>Espereintzia honen bidez, gure ikastetxe tutorearen eskutik zerrenda honetako esparru bat edo batzuetan hobetzeko aukera eskaintzen dugu:</p> <p>1-Alde estrategikoa: hezkuntza proiektua, plan estrategikoa, urteko plana eta urteko memoria.</p> <p>2-Ikastetxearen antolaketa: dokumentuen azterketa eta eraginkortasuna bilatzea.</p> <p>3- Eskaintzen ditugun tresnak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Irakaslearen koaderno eta koaderno digitala: Irakasleen koadernoak bide ematen du egiten diren jarduerak egokiro eta sistematikoki kudeatzeko: ikasgela planifikatzeko eta jarduerak egiteko, ikastetxera nor etortzen den eta nor ez kontrolatzeko, egindako ebaluazioen txostenak eta notak jasotzeko, eta ikasgelako prozesuaren kontrola eta jarraipena egiteko. Koaderno horretan, irakasleak programazioa nola garatzen ari den ere islatuko du. Hori oso lagungarria da ikasgelako dinamikari eusteko irakaslea ez dagoenean (ordezkapenak, bajak...) ✓ Bestelako tresnak: harrera plana, ikastetxearen ebaluazioa (gogobetetasun inkestak ...), tutoretza plana, dokumentazioaren kudeaketa ...
Erreferentea	KALITATEA HEZKUNTZAN SAREA
Ikastetxeak	IES BEASAIN BHI (Beasain) CEIP ZABALGANA HLHI (Vitoria-Gasteiz) IES EGAPE BHI (Urnieta)
Argibide gehiago	http://hezkuntza.blog.euskadi.net/kalitateahezkuntzan/



12. ESPERIENZIA

Izenburua	Ikasgelako jarduerak hobetzeko ereduak.
Edukia	<p>Ikasgelako jarduerak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuaren alderdi garrantzitsuenetarikoak dira. Gaur egungo ikasgelak oso heterogeneoak dira, beraz, ikasle guztien inklusibitatearen alde lan egiteko era berriak bilatu behar ditugu.</p> <p>Esperientzia honen helburu nagusia da gure gelako jardueri buruzko hausnarketa eta planifikazioa egitea. Horretarako, gelan praktika berriak ezartzen laguntzeko aholkularitza eta ereduak eskainiko ditugu, ikastetxe tutoreekin esperientziak partekatuz eta elkarrekin/elkarrengandik ikasten..</p> <p>1- Hizkuntza proiektua ikasgelan TUTOREA: (HTB) LIZARDI BHI.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen hizkuntza komunikaziorako irakaskuntza prozesua eta ikastetxeko hizkuntzen erabileraren kudeaketa. • Hizkuntza Proiektua bizirik mantentzeko estrategiak: ikaste-irakaste prozesuan txertatu, hizkuntza trataera bateratua bere baitan ikusita. • Hizkuntza aniztasuna: hizkuntzak modu errazean irakasteko metodologia, programazioak eta ebaluazioa bateratua, eta ikasgelako jarduera eraginkorren diseinua . • Ikastetxeko irakasle oren ardua komunikazio-gaitasun eta beste gaitasun guztien garapenean. <p>2-Autonomia Haur Hezkuntzan: txokoetako zirkulazioa. TUTOREA: SAN MARTIN DE AGUIRRE (BERGARA)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Testuinguru desberdinetan eskola-denboraren antolaketa: TXOKOAK. • Gelen kudeaketa: gela bakoitza antolatu egoera zehatz bat garatzeko, baliabide ezberdinekin eta elkarren artean bereizita dauden espazioekin. • Txokoen planifikazioa: Batetik, ikasketa espontaneo eta esperimental bultzatzen dituztenak, eta bestetik, ikasketa formal eta sistematikoa eskaintzen dituztenak. • Baliabideen antolaketa: Baliabide ugariak zein bereiziaz, ikasleen ezagupen eta esperientziak eraikitzea, modu intuitiboan zein sistematikoan, ahalbidetzen dutenak. • Txokoetako zirkulazioa: Hainbat geletan kokatuta, ikasleak multzokatzen dira euren aukeren arabera. • Irakasleen esku-hartzea: behaketa, koordinazioa ... <p>3-Ikastaldean kudeaketa konpartitua, aniztasunari erantzuna emateko esperientzia: Bi irakasle ikasgela barruan TUTOREA: ZELAIETA HHLH (ABADIÑO)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasleen jarraipen zehatza egiteko bideak ezagutzea • Elkarrekintzetan oinarritutako metodologia ezberdinak ezagutzea. Interakzioa ahalbidetzen duten material eta jarduerak, era indibidualean, talde txikian zein talde handian, erabili daitezkeenak. • Ikasgelako jarduerak planifikatzeko eta irakasle bien arteko koordinaziorako tresnak ezagutzea (rolak, funtzioak, ikasleekin lanak, esku-hartzea...)
Erreferentea	KALITATEA HEZKUNTZAN
Ikastetxeak	IES LIZARDI BHI (Zarautz) CEIP SAN MARTIN AGUIRRE HLHI (Bergara) CEIP ZELAIETA HLHI (Abadiño)
Argibide gehiago	http://hezkuntza.blog.euskadi.net/kalitateahezkuntzan/



13. ESPERIENTZIA

Izenburua	Ikasleak euskaraz egitera behartzetik haiek egin nahi izan dezaten erakartzera
Edukia	<p>Euskararen erabilera eta motibazioaren alorrean, barnetegiak, orain 28 urte sortu zirenetik, izan duten bilakaera azaldu nahi dugu:</p> <p>1.- Abiapuntuko egoera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Euskararen erabilera ez genuen modu naturalean lortzen, ikasleen atzetik ibiltzen ginen euskaraz egin zezaten. - Barnetegiko egonaldian ikasleen erabilera areagotzera mugatzen zen gure lan jarduna. Horixe genuen helburu nagusia. <p>2.- Kezkak. Lan jardun horrek kezka batzuk sortu zituen guregan, barnetegiotan:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Erabilera handitzea ez zen iraunkorra, egonaldia amaituta lehengora itzultzen zen. - Aldaketa sakonagoa behar genuen, ez genuen mugatu behar “euskaraz egin” esatera. <ul style="list-style-type: none"> - Baina euskaraz egitera behartzea alde batera uzten hasita, gabezia bat sentitu genuen: “zer egin dezakegu horren ordez?”. <p>3.- Ikuspegi aldaketa. Kezka horiei erantzun nahian, ikuspegi aldaketa bat etorri da barnetegian lan metodologian:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Ikasle taldea eta pertsona (norbanakoa) dira gure lanaren ardatz eta erdigune. - Ikasleek euskararekin duten harreman afektiboa berariaz lantzen dugu. - Ikasleak euskaraz egitera behartzetik pasatu gara ikasleak erakartzera, limurtzera, haiek euskaraz egin nahi izan dezaten. <p>4.- Hori nola egiten dugu?</p> <ul style="list-style-type: none"> - “Agian ahaztuko dute guk esandakoa, baina inoiz ez sentitutakoa”. Horixe da gure esaldi gakoetako bat. - Babesa, afektua eta segurtasuna ematen diegu. - Aukerak sortzen ditugu, ikaslea entzule izatetik hiztun izatera pasa dadin.
Erreferentea	Euskal Girotze Barnetegiak
Ikastetxeak	Euskal Girotze Barnetegiak: Alkiza Barria Elgoibar Lemoiz Segura
Argibide gehiago	www.barnetegiak.eus



III. ERANSKINA

“PARTEKATUZ IKASI” ESPERIENTZIETAN PARTE HARTZEKO AKORDIOA

....., 2015ekoarena.

BILDUTAKOAK

Batetik,....., ikastetxearen izenean. “Partekatuz ikasi” esperientzia bat egiteko dirua esleitu zaio ikastetxeari.

Bestetik,..... Koordinatzailea izango da, ikastetxean. “Partekatuz ikasi” esperientzian tutorearena egiteko izendatu da ikastetxea.

AZALDU DUTE:

I. Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak diru-zenbateko bat eman dio ikastetxeari, honako “Partekatuz ikasi” esperientzia hau egiteko:
.....

II. ikastetxea esperientzia horretan laguntzeko tutore izendatu da.

Horregatik, honako hau

ERABAKI DUTE:

1. Lan-egitasmo bat onartzea, akordio honi erantsiko zaiona, “Partekatuz ikasi” esperientziaren bilakaera finkatzeko. Haren barruan, tutorearena egiten duen ikastetxea hiritan joango da gutxienez eskaera egin duen ikastetxera, eta eskaera egin duen ikastetxea behin gutxienez tutorearena egiten duen ikastetxera.

2. Honako betebeharrak ezartzea eskaera egin duen ikastetxeari:

- Ikastetxean esperientziaren bilakaera koordinatzeko arduraduna izendatzea.
- Tutorearena egiten duen ikastetxearekin lan-egitasmoa zehaztea, prozesuaren fase guztiak gauzatzea eta parte aktiboa hartzea.
- Ikastetxe interesduneko kide guztiek esperientzia osoan parte hartzen dutela bermatzea.
- Esperientzian oinarritutako jardunbide bat abiaraztea ikastetxean.
- Prozesua ebaluatzea eta amaierako memoria egitea.
- Esperientzia klustroari ezagutaraztea.
- Esperientziaren amaieran, ikastetxe gisa erabakitzea ea egokia den ala ez esperientziaren bidez ikasitakoa ikastetxean aplikatzea.
- Berritzeguneko erreferentziarako aholkulariarekin harremanetan egotea, esperientziaren bilakaerari buruzko informazioa emateko.

3. Honako betebeharrak ezartzea tutorearena egiten duen ikastetxeari:

- Ordutegia behar bezala egokitzea eta tutoreei beren lana egiteko malgutasuna ematea.
- Eskaera egin duen ikastetxeari esperientziari buruzko prestakuntza ematea eta esperientzia egiteko beharrezko materiala eta dokumentuak ematea.
- Eskaera egin duen ikastetxera gutxienez hiritan joatea, haren testuinguruaren berri izateko.



- Eskaera egin duen ikastetxea esperientziaren inguruan aholkatzea eta praktika bat abiarazteko aholku ematea.
- Esperientziaren eta praktikaren bilakaeraren jarraipena eta ebaluazioa egitea, baita eskaera egin duen ikastetxearen inplikazioarena eta parte-hartzearena ere.

4. Eskaera egin duen ikastetxeari esleitutako 1.000 euroak “Partekatuz ikasi” esperientzia egiteko gastuak ordaintzeko erabiltzea: joan-etorri eta bisitaldien gastuak eta materiala eta dokumentuak prestatzekoak (eskaera egin duen ikastetxearenak zein tutorearena egiten duenarenak).

Bat datozen adierazgarri, hasieran aipatutako egunean eta lekuan, akordio honen bi ale sinatu dituzte aldeek. Ondoren, kopia bat bidaliko diete eskaera egin duen ikastetxeari dagokion Berritzeguneari eta Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzari.

Eskaera egin duen ikastetxearen izenean,

Koordinatzailea, tutorearena egiten duen ikastetxearen izenean,